



# MEMORIA 2022

IHOBE  
EKINEAN



IHOBE  
PERTSONETAN



IHOBE  
GEHIAGO



EKINTZA KLIMATIKOA TOKIKO JASANGARRITASUNA EKONOMIA ZIRKULARRA LURZORUAREN KUDEAKETA INGURUMEN HEZKUNTZA EKOBERRIKUNTZA

# Ihobeko presidentearen agurra



**Arantxa Tapia Otaegi**  
Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen,  
Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua, eta IHOBE -  
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren  
presidentea.

**Trantsizio-prozesu  
a azkartzea,  
Euskadi  
jasangarriagoa  
lortzeko**

Eusko Jaurlaritzak bere ibilbide-orria garatzen du, klima- eta energia-trantsiziorako ardatz nagusiak industria eta teknologia izango dituen eredu ekonomikoa lortzeko. Euskadiko Itun Berdea ekonomia zirkularraren, teknologiaren, zientziaren eta tokiko administrazioei laguntza ematearen aldeko apustu irmoa da, berotegi-efektuko gasak murriztea eta klima-aldaketara egokitzea lortzeko.

2022an, Ihobek helburu horiek lortzen lagundu du, besteak beste honako ekintza hauen bidez: Lurzorua Babesteko Estrategia ikuspegi integral batekin prestatzea edo Erreminta-Gida –udalek eta eskualdeko erakundeek beharrezko klima- eta energia-trantsizioa bizkortu ahal izateko tresna eta zerbitzu guztiak biltzen dituen zerbitzu-karta– hedatzea.

Lerro hauen bidez, Ihobek 2022an lortutako mugarri nagusiak ezagutzera gonbidatzen zaituztet.

# Zuzendariaren agurra



**Alexander Boto Bastegieta**

Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko zuzendari nagusia. Eusko Jaurlaritza.

**Ekonomia  
zirkularra Euskadi  
jasangarriago bat  
lortzeko,  
klima-aldaketaren  
erronkaren  
aurrean**

Ihobe 2022ren memoria egungo klima-larrialdiari aurre egiteak dakarren erronka itzelaren isla da. Basque Circular Summitek baieztatu du ekonomia zirkularra eta ekoberrikuntza funtsezko tresnak direla euskal industria deskarbonizatzen. Hala ere, klima- eta energia-trantsizioa ezinezkoa izango litzateke Life Urban Klima 2050 bezalako klima-ekintzako proiekturik eta toki-administrazioaren bultzada eta ausardiarik gabe; izan ere, 2022an, toki-administrazioak Udalsarea 2030en –Udalerrri Jasangarrien Euskal Sarea– 20. urteurrena ospatu du.

Ihoben uste dugu horrela bakarrik –pertsonek eta ahaleginen baturatik– lortuko dugula guztion artean Euskadin ingurumenaren hobekuntza.

# ihobe gara

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikitako erakunde publikoa gara. Lan egiten dugu ingurumena hobetzeko, ingurumen-irizpideak politika publikoetan txertatuz.

**Espezializatuta gaude lurzoruaren babesaren, ekonomia zirkularraren, klima-aldaketaren, biodibertsitatearen eta jasangarritasunaren arloetan.**

”

## zer egiten dugu?

Erakunde publiko eta pribatuei zuzentzen gatzaizkie, eta Euskadiko herritarrekin harremanetan jartzen gara.





# misioa

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikitako erakunde publikoa gara. Lan egiten dugu ingurumena hobetzeko, ingurumen-irizpideak politika publikoetan txertatuz.

Erakunde publiko eta pribatuei zuzentzen gatzaizkie, eta Euskadiko herritarrekin harremanetan jartzen gara.

Espezializatuta gaude lurzorua babesaren, ekonomia zirkularraren, klima-aldaketaren, biodibertsitatearen eta jasangarritasunaren arloetan.

# ikuspegia

Ihoben, Euskadiko Ingurumen Agentzian, erreferentzia-solaskidea izan nahi dugu gure interes-taldeentzat ingurumen-politikak diseinatu eta hedatzerakoan.

Horretarako, ingurumenaren integrazio sektoriala bultzatzen duten tresna publikoak sortzen eta kudeatzen ditugu, eta erabakia hartzeko ezagutza aplikatua sortzen eta transferitzen dugu.

Gure ikuspegia integrala da; politika publikoen ziklo osoa hartzen du; berrikuntzan oinarritzen da; eta ingurumenaren aldetik jasangarria den Euskadiko garapenari laguntzen diogu

ihobe  
ekinean





**+800**

**enpresa baino gehiago mobilizatu ditugu ekonomia zirkularrean**



2022  
BASQUE  
CIRCULAR  
SUMMIT



**ETE Zirkularra  
PYME Circular  
Euskadi**



**Basque  
Ecodesign  
Center**



**209**

**udalerrri, 10 eskualde eta udalaz gaindiko 21 mankomunitate atxiki zaizkio Udalsarea 2030 programari**



**udalsarea  
2030**

udalerrri jasangarrien euskal sarea  
red vasca de municipios sostenibles



**+120.000**

**pertsonak baino gehiagok parte hartzen dute Ekoetxea sare berrian**




**Euskadiko Ingurumen zentroen sarea**  
Red de Centros Ambientales de Euskadi



173

gazte, ekonomia  
zirkularreko prestakuntza  
praktikoarekin



Zeharkako eta lankidetzako

10

proiektu,

Euskadiko Lurzorua Babesteko lehen  
Estrategia onartu ondotik, aitzindaria  
ikuspegi integrala duelako




7

proiektu berritzaile  
klima-aldaketara  
egokitzeko - Klimatek  
programa

# 2024 helburu estrategikoak

- **1HE** Politika publikoetan ingurumen-jasangarritasuna txertatzea
- **2HE** Inbertsioa edo gastua katalizatzea ekoberrikuntzan, ingurumen-babesean eta lurzoru-berreskuratzean
- **3HE** Ekogarapenaren konfiantza bermatzea lurzoria babesteko, EZ, KA eta ingurumen-jasangarritasunerako tresnak hedatzeko
- **4HE** Erreferentzia izatea ezagutzaren transferentzian eta erabakiak hartzeko aditu-irizpide gisa
- **5HE** Enpresak eta udalerrriak mobilizatzea lurzoria babesteko, ekonomia zirkularreko eta klima-aldaketako ekintzei begira
- **6HE** Herritarrengan jokabide jasangarrien aldaketak bultzatzea
- **7HE** BEG isurien murrizketa eta baliabide materialen erabilera efizientea erraztea
- **8HE** Kudeaketa aurreratua duen erakunde eredugarritzat hartzea



## 2022ko emaitzak

Ihobek, 2022an egindako lanaren bidez, honako hobekuntza hauek eragin ditu:




Hirugarrenen

**30 milioi €**

mobilizatu dira  
**ingurumen-politikaren  
sektore-integrazioan**

Ondorio biderkatzailea 2,86 € izan da:  
Ihobek gastatutako aurrekontuko  
euro bakoitzeko, sei euro mobilizatu  
dira ingurumen-inbertsioan.



Berotegi-efektuko

**13.933**

**tona gas murriztu dira**



Ekonomian berriz sartu  
beharreko

**257.000**

**tona hondakin eta lur**



Erabakiak hartzeko  
ezagutza aurreratuko

**31**

**tresna**

(argitalpenak, bisoreak, metodologiak,  
gida teknikoak, etab.)



**1.084 milioi €**

mobilizatu dira **erosketa  
publiko berdean**




Erakundeen

**%81,6**

Ihobek bere tresnen bidez  
emandako ezagutzaren  
arabera **jardutea edo  
erabakiak aldatzea**  
pentsatzen du.



# aurrerapen txostena




[www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus)



**11,9** milioi €

2022ko  
ustiapen-aurrekontua



**%100**

2022ean  
gauzatutako  
aurrekontua



**%0**

Finantza-zorpetzea



**13** egun


Enpresa hornitzaileei  
fakturak ordaintzeko  
batez besteko epea  
(2022)




**Ekintza klimatikoa**



**Ekonomia zirkularra**



**Ingurumen-  
jasangarritasuna**



## Ekintza klimatikoa

## Lurzorua babesteko estrategia

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Lurzorua Babesteko 2030erako Estrategia onartu du, hau da, lurzoruaren kudeaketari modu integralean heltzen dion lehenengo estrategia, lurzoru kutsatuetan lan egiteko ikuspegi tradizionala gaindituz; izan ere, Euskadi horren erreferentzia bat da europar eremuan. Era horretan, estrategia aurrendari bihurtzen da bere ikuspegiagatik, bai Euskadin eta bai Estatuan. Europaren kasuan, estatu edo eskualde bakar batzuek soilik –adibidez: Suitza, Eskozia, Gales eta Holanda- dituzte horrelako politikak lurzoruaren kudeaketa integralerako.



## ASTEKLIMA 2022

ASTEKLIMAREN hirugarren edizioan (Klima eta Energiaren Astea), 200 jarduera baino gehiago sustatu ziren **58 udalen, mankomunitate baten eta hiru administrazio-batzarren bidez**, bai eta sektore pribatuko hiru elkarte eta bost erakunderen bidez ere, klima-aldaketaren eta trantsizio energetikoaren erronka herritarren agendan jartzeko eta mobilizatzeko.

Gainera, Euskadiko Klima eta Energiaren Astearen hasieran, Ihobek klima-aldaketari buruzko film laburren **KLIMAMETRAJE** gazte-lehiaketaren lehen edizioa deitu zuen. Honako bi kategoria hauek izan.



## LIFE IP Urban Klima 2050



2022an, LIFE IP Urban Klima 2050 proiektuak 6,15 milioi euro inbertitu zituen klima-aldaketa egokitzeko eta/edo arintzeko proiektuetan. Hurrengo urteetarako Euskadiko klima-ekintzako proiektu handienaren idazkari tekniko gisa, Ihobek 2022ko azaroan egindako «Uhinak» Klima Aldaketa eta Itsasertzari buruzko mugaz gaindiko V. Kongresuan parte hartu zuen, atal propioarekin.

URBAN KLIMA 2050



## OPCC Adapyr 2022



Euskadik klima-aldaketara egokitzeko Europako mugaz gaindiko lehen estrategia egiten parte hartzen du, **Adapyr proiektuaren** bidez, Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokiak (OPCC) gidatuta. Pirinioetako Lan Elkarteak (CTP), «Mendi-eremuetako klimaren aldaketari buruzko nazioarteko 4. solasaldian», Bilbon, Pirinioetan klima-aldaketara egokitzeko jardunbide egokien ekimen horren emaitzak aurkeztu zituen, mugaz gaindiko lankidetzatestu-gurubatean. Ihobe proiektuko erakunde elkartua da, eskualdeko, estatuko eta nazioarteko beste 11 erakunderekin batera, eta sei fasetan banatutako 14 gomendioren bidez lagundu du, klima-aldaketari buruzko politikak integratzeko eta Pirinioetan eskualde- zein toki-mailako neurri politikoak hartzeko.



## POSIDON



**POSIDON** erronkaren helburua da eskaera publikoak Europako lurzoruaren deskontaminazioaren sektorean bultzatutako berrikuntza-faltari aurre egitea. 2022an, proiektuaren III. FASEA hasi zen. Fase horretan, hautatutako eta ezarritako bi teknologia berritzaileen proba pilotuak egin ziren Zorrozaurreko (Bilbo) lurzati batean eta Triesteko Portuan (Italia).





## Ekonomia zirkularra


## Basque Circular Summit



Basque Circular Summitek, Europako hegoaldeko ekonomia zirkularren topaketarik handienak, 800 pertsona baino gehiago eta industria-sektore askotako 350 enpresa inguru mobilizatu zituen negozio-eredu zirkular berriak ezagutzeko, euskal industria deskarbonizatze funtsezko tresna.



## Basque Circular Hub zentro berria



Gasteizek Basque Circular Hub zentroaren egoitza berria hartu du. Euskadiko ekonomia zirkularreko zerbitzu aurreratuen erreferentziazko zentroa da, honako zerbitzu hauek eskaintzen baititu: merkatu-prospektiba, prestakuntza aurreratua, joeren analisia eta ezagutza aditua sortzea.



## Zirkularrak – Circulares erakusketa ibiltariari hasiera eman zaio



Zirkularrak – Circulares erakusketa ibiltariari hasiera eman zaio, ekonomia zirkularri buruzko ezagutza sustatzeko bai herritarren artean, bai ekoberrikuntzako garapen arrakastatsuak ezagutu eta aplikatu nahi dituzten euskal enpresen artean. Europako Hiriburu Berdearen Gasteizko 10. urteurrenean inauguratu ondoren, erakusketak Irunen jarraitu zuen, Basque Circular Summit zela-eta.



## Ekoberrikuntza Euskadin



Ihobek «Ekoberrikuntza Euskadin. 105 industria-proiektu irtenbide zirkular berrietarako» argitaratu du. Bertan, lehengaien kontsumoa murriztera eta produktuen iraunkortasuna areagotzera bideratutako lurraldeko lankidetzak publiko-pribatuaren adibide arrakastatsuak azaltzen dira. Inbertitutako euro publiko bakoitzeko, urteko 21 euroko fakturazio gehigarria mobilizatu da sektore pribatuan.



## Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Europako Astea

HHKoren lantalde teknikoa berraktibatu zen eta azaroan Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Europako Astearen beste edizio bat egin zen. Euskal hautagaiak Europar Batasunaren ekimen horretara aurkeztu ziren



## Euskadiko ETE Zirkularra



Euskadiko ETE Zirkularra abian jarri da. 22 enpresa-eragilek parte hartzen dute, eta 2.000 enpresa baino gehiago eta balio-kate industrialeko 175.000 langile mobilizatzen dituzte euskal lurralde osoan.





## Ingurumen- jasangarritasuna

# Udalsarea 2030ek, 20. urteurrena ospatu du

- Udalsarea 2030ek, udalerrri jasangarrien euskal sareak, 20. urteurrena ospatu du. Gaur egun, 152 udalerrri, hiru lurralde historikoetako 21 eskualde-erakunde eta udalaz gaindiko 10 erakunde daude atxikita.
- Udalsarea 2030ek tokiko ekintza jasangarria eta 2030 Agenda Euskadin bultzatzeko lankidetzako esparru akordio berria aurkeztu du.



**udalsarea**  
2030

udalerrri jasangarrien euskal sarea  
red vasca de municipios sostenibles

**50**  
udalerrri  
ari dira lanean Tokiko  
2030 Agendan



Ihobek Udalsarea 2030en idazkaritza teknikoa du. Sare hori erreferentziatzeko da Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuei ekarpena egiteko, batez ere klima-neutraltasunaren eta -erresilientziaren, lurzorua babesteko eta ekonomia zirkularren esparruetan.



25


euskal udalerrri  
atxiki zaizkio Alkatetzen  
Klima eta Energiarako  
Nazioarteko Itunari.

38

udalerrrik  
euren udalen Berotegi  
Efektuko Gasen isurketen  
Inbentarioa eta Karbono  
Aztarna kalkulatu dituzte  
2016az geroztik.

55

euskal udalerrrik  
egin dituzte, eskura  
dituzte edo lantzen  
ari dira klima  
(arintzea eta egokitzea)  
eta energia jorratzen  
dituzten planak.



## Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programa aurkeztea. Hogeitabat erakundek bat egin dute



## Ihobek eta EEEK «Erreminta-Gida» aurkeztu dute

Udalerri jasagarrien euskal sareak eskualde-bisitak koordinatu ditu. Bisita horietan, Ihobek eta EEEK «Erreminta-Gida» aurkeztu dute, trantsizio energetiko eta klimatikoan laguntzeko tresnen gida. Udalsarea 2030en bidez zabalduko ekimenak trantsizioaren eta klima-aldaketaren esparruan laguntza-euskarriak eta laguntza-programak jartzen ditu tokiko administrazioaren esku.



## Erronka Garbia ziurtagiria

Erronka Garbia ziurtagiriak sendotasuna hartu du, 200 ekitaldi jasagarri baino gehiago antolatu baititu jarduera jendetsuak egitearekin lotutako inpaktu negatiboetarako buruz kontzientziatzeko.



## 2030erako Jasangarritasunerako Hezkuntza Eskola

Udako ikastaroen 2030erako Jasangarritasunerako Hezkuntza Eskolaren lehen edizioa, «Erronkak genero-ikuspegitik». Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak, Ingurugelak eta Ihobek antolatua.



## Ekoetxea - Euskadiko ingurumen-zentroen sarea

Euskadiko ingurumen-zentroen sare berriak 120.000 bisita baino gehiago jaso zituen 2022an. Estreinaldi bikoitzeko urtea izan zen.

Izan ere, web berria eta helburu berria estreinatu zituen: gure pentsaera aldaraztea modu jasangarrian jarduteko.

2022an, Eusko Jaurlaritzak Ihobe sozietate publikoaren bidez kudeatutako sareak irudi-aldaketa bat egin zuen. Horren bitartez, interpretazio-zentroak ingurumen-zentro bihurtu ziren, herritarrei trantsizio ekologiko eta energetikoaren aldeko apustuan eta konpromisoan laguntzeko.

Sarea lau zentro propioki osatzen dute (Ekoetxea Urdaibai, Ekoetxea Meatzaldea, Ekoetxea Txingudi eta Ekoetxea Azpeitia), eta 2022an Araban zentro propio berri bat eraikitzeke lanei ekin zien: Ekoetxea Añan.n.






**ihobe** ↗  
**pertsonetan**

**Gardentasunarekin, gobernu onarekin eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin konprometitutako erakundea gara**



**74**

**pertsona**  
24 gizon  
50 emakume



**44**

**urte**  
batez beste



**%78**

**dauka**  
**Goi-mailako**  
**titulazioa**



**8,53**

**gogobetetze-maila**  
**Ihoberen lanarekin**

## Administrazio kontseilua



**PRESIDENTEA**

**Arantxa Tapia Otaegui**

Ekonomiaren Garapen,  
Jasangarritasun eta  
Ingurumeneko sailburua



**PRESIDENTEORDEA**

**Amaia Barredo Martín**

Ingurumen eta  
Jasangarritasuneko  
sailburuordea



**KONTSEILUKIDEA**

**Javier Aguirre Orcajo**

Ingurumen Kalitatearen  
eta Ekonomia  
Zirkularraren zuzendaria



**KONTSEILUKIDEA**

**Olga Martín García**

Aclimako zuzendari  
nagusia



**KONTSEILUKIDEA**

**Alberto José Fernández  
González**

Teknologia eta  
Berrikuntzaren zuzendaria



**KONTSEILUKIDEA**

**Ane Etxenautia  
Aramburuzabalai**

Zerga Administrazioako  
zuzendaria



**IDAZKARIA**

**José Antonio Armolea  
Solabarrieta**

Ihobeko Aholkularitza  
Juridikoko zuzendaria



**ZUZENDARI NAGUSIA**


**Alexander Boto  
Bastegieta**

Ihobeko zuzendari  
nagusia

# Ihobeko Organigrama



Emakundek emandako «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» aitortpena daukagu. Sare hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen bereizgarria duten eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko borondatezko konpromisoa duten erakundeek osatzen dute.



### Hona hemen III. Berdintasun Planaren emaitza batzuk:

- kontratazio-prozedurak berrikustea, berdintasun-klausulak zuzentzeko edo txertatzeko;
- inguruneko eragileekin lankidetzan aritzea, lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten emakumeen enplegarritasuna sustatzeko;
- langileei lantegien bidez prestakuntza ematea;
- Bai Sarearen aintzatespena, kontziliazioari buruzko jardunbide egokia saritzeko;
- ekitaldi korporatiboetan emakumeak duen lidergoari buruzko jardunaldi monografikoak eta klima-aldaketari begira genero-ikuspegia aztertzea.

**2022an, IV. Berdintasun Planaren zirriborroa egin zen.**

# Ihobe eta gizarte-erantzukizuna

## Gizarte-ingurunea osatzen duten erakundeen garapena zaintzen dugu.

Horretarako, gizarte-lana egin dezakegun jardueretan aktiboki parte hartzen dugu, gure gaitasun eta balioekin bat etorriz, eta gure estrategia indartzen dugu, ingurumen-jasangarritasuna laguntzen duten neurriak bultzatzeari utzi gabe.

Hori guztia parte-hartzetik abiatuta egiten dugu, haztegi bat sortzeko eta horri esker **lankidetz**a, **gizarteratze** eta **hezkuntzako** jarduerak proposatu eta zabaltzek

## 2022ko mugarri nagusiak



### Kontratazioa eta laneratzea

- Laneratze-enpresen eta enplegu-zentro berezien fakturazioan % **27ko igoera**
- **Lau laneratze-enpresa** eta enplegu-zentro berezi kontratatu dira.
- **Laneratze-enpresen % 19 inguru kontratatzea**, Eusko Jaurlaritzak ezarritako % 5aren gainetik.
- **Diskriminazio positiboa** aplikatzeko hiru baldintza-agiri, berdinketa berdintasun-klausulak edo gizarteratze-klausulak aplikatuta hausteko.
- Lantegi Batuak erakundeko desgaitasuna duen pertsona batek **lhoben ordaindutako praktikak egin ditu**, Bizkaia Plaza eraikinarekin lankidetzan



### Lankidetz

- **Aliantza estrategikoa Elankidetzarekin** ingurumen- eta lankidetza-jardueren mesederako, ekimenen bidez eta tokian bertan.
- **Elementu ibilgetuak berrerabiltzea**, adibidez bost urteko antzintasuna duten ordenagailuak.



### Hezkuntza eta enplegua

- **Lanbideren programan parte hartu dugu**, urtebeterako 20 profesional kontratatzeko, lan-merkatuan izandako lehen esperientziak kontatzeko eta ingurumenarekiko sentsibilizazioa zabaltzeko.
- Batez beste **bost bekadun** egon dira lhoben, hainbat jakintza-arlotan.
- **Era altruistan parte hartu dugu** hainbat **master eta graduondoko ikastarotan** ingurumen-gaiak irakasten.

Ihobe ↗  
gehiago



Euskadi Regions4-en buru da, garapen iraunkorraren aldeko eskualde-gobernuen sare globala. Hainbat ekimenen bidez, **300 milioi pertsona baino gehiago** ordezkatzen dituzten **77 eskualde** biltzen ditu, klima-aldaketara eta biodibertsitatera egokitzearen arloan lankidetzan aritzeko. 2030 Agenda du ibilbide-orri gisa, etorkizun jasangarri eta erresilientea bermatzeko.



 irakurri gehiago

**2022an**, honako hauek burutu dira

- Euskadik 2024ra arte berritu zuen sarea gidatzeko konpromisoa.
- Alexander Boto zuzendari nagusiak **Euskadiko trantsizio berdea** aurkeztu zuen **EuroFound Foundation Forum 2022** ekitaldian.
- Ingurumen-hezkuntzaren **Euskal Estrategiaren aurkezpena** Lombardiak antolatutako ekitaldian **Ingurumen-hezkuntzaren Munduko Biltzarrean** (Praga).
- Alexander Boto zuzendari nagusiak **Regions4ren Batzar Nagusian** parte hartu zuen, eta jardunbide egokiak eta erresilientziarako bideak aztertu zituen eskualdeen arteko goi-mailako elkarrizketa bat moderatu zuen. Gainera, honako hau ere zuzendu zen: **“Eskualdeko gobernuen Rabat-Salé-Kénitra Adierazpena** klima-aldaketari buruzko COP27rantz”.
- **Euskadiko ordezkariak** Egipton **klima-aldaketari buruz egindako COP-27an parte hartu zuen**. Bertan, goi-mailako ekitaldietan, honako hauek aurkeztu ziren: **“Eskualdeko gobernuen Rabat-Salé-Kénitra Adierazpena COP27rantz”**, eskualdeko 45 gobernuk eta nazioarteko sareek sinatua, eta **“Regions Adapt 2021-2022 Aurrerapen Txostena”**, 16 herrialdeko 32 eskualdek klima-aldaketara egokitzeke 322 ekintza jasotzen dituen. Horien artean dago Euskadi, eta Kostegoki eta LIFEko Urban Klimaren kasu praktikoak jasotzen ditu.
- Iñigo Urkullu lehendakariak Montrealean Biodibertsitateari buruzko COP-15eko Gobernu Azpizionalen 7. Goi Bileran parte hartzea babestea.
- Euskadi **RegionsWithNature** ekimenari atxikitzea eta Euskadiri buruzko bi aztertzeke kasu aurkeztea plataforman.



2022an, Under2 Coalition sarearekin izandako mugarriak honako hauek izan ziren

- **Euskal ordezkariak, Arantxa Tapia sailburua buru izanda, New Yorkeko Klimaren Astean parte** hartzea babestea, The Climate Group eta Under2 Coalitionek antolatutako maila politiko handiko hainbat ekitalditan. Horrez gain, alde biko bileretan parte hartzea Kaliforniako Estatuarekin, Eskoziako Gobernuarekin, Hegoafrikako Gobernuarekin eta NBE-Energiako ordezkariekin.
- Euskadiko ordezkariak klima-aldaketari buruzko goi-mailako ekitaldi batean parte hartu zuen, Egipton, klima-aldaketari buruzko COP-27ren esparruan. Ekitaldi horretan, **Euskadik klima-aldaketarekin konprometitutako eskualde gisa duen lidergoa**, maila anitzeko gobernantza eta LIFE Urban Klima proiektua azaldu ziren.



2022an, honako hauek burutu ziren

- **Euskadik klima-aldaketaren arloko jardunbide egokiak aurkeztu zituen** Municheko IFAT azokan (World 's Leading Trade Fair for Water, Sewage, Waste and Raw Materials Management).
- Ihobeko langileen parte-hartzea **klima-aldaketara egokitzeari eta azpiegitura urdinari buruzko eta ekonomia zirkularrari** buruzko TAIEX Europako adituen tailerretan.

Ihoberen bereizgarri nagusia beste erakunde eta entitate batzuekiko konpromiso irmoa eta **etengabeko lankidetzak** mantentzea da. Erakunde eta entitate horiekin **ingurumen-politikaren arloan** lankidetzak-dinamika bat du, ekintza klimatikoaren, ekonomia zirkularraren garapenaren eta tokiko jasangarritasunaren bidez ingurumen-hobekuntza lortzeko Euskadi osoan.





**Euskadiko lurzorua babesteko 2030erako Estrategia**



**Ekoberrikuntza Euskadin. 105 industria-proiektu irtenbide zirkular berrietarako**



**ERREMINTA - GIDA. Toki-administrazioentzako laguntza energia eta klimaren arloko trantsiziorako**



**Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi Eftektuko Gasen Isurketen Inbentarioa 2020.**



**Udalsarea 2030, 20 urte tokiko garapen jasangarriaren alde lanean**



# Ihobe eta ingurumen-komunikazioa

Ihoberen ustez, kalitatezko ingurumen-komunikazioa funtsezkoa da gizarteak iraunkortasunaren bidean aurrera egin dezan. Horregatik, 2022an, Euskadiko Ingurumen Kazetaritzako Sariari ematen diogun babesa berritu dugu, EHUko uda ikastaroen Ingurumen Komunikazioaren Eskolaren buru izaten jarraitzen dugu, eta jasangarritasunari eta ingurumenari buruzko edukiak sortzen jarraitzen dugu gure En verde-Berdean podcast kanalean.

## Ingurumen Komunikazioaren Eskola



Lankidetzeta-hitzarmen bat dugu **APIA Ingurumen Informazioko Kazetarien Elkartearekin**. Hitzarmen horretatik sortu zen, besteak beste, Ingurumen Komunikazioaren Eskola, UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen uda ikastaroetan kokatuta, bi kezka handiri erantzuteko: komunikazioa eta ingurumena.

Ingurumen Komunikazioaren Eskolaren laugarren edizioa 2022ko irailaren 7an eta 8an egin zen, eta «Krisi ekologikoa, osasun-krisia» izenburua izan zuen. Edizio horren helburua **klima-krisiaren, ekosistemen kontserbazioaren eta pertsonen osasunaren** artean dagoen harreman estuari heltzea izan zen.



## Ingurumen Kazetaritzako Saria



Euskal Kazetarien Elkartearekin eta Kazetarien Euskal Elkargoarekin (EKE-KEE) batera egindako lanaren emaitza gisa, 2019tik eta Ihoberen laguntzari esker, urtero ematen da **Euskadiko Ingurumen Kazetaritzako Saria**, informazioaren profesionalak, besteak beste, garapen jasangarria hedatzeko, klima-aldaketaren ondorioak zabaltzeko edo natura-ingurunearen kontserbazioa sustatzeko egiten duten lana aintzatesteko.

2022an, **Ramón Bustamanteri** eman zioten saria, Radio Popular irratiako esatari eta kazetari beteranoa, lau hamarkada eman baititu gizarte- eta ingurumen-gaiei buruz hitz egiten.



## Podcast-kanala



2021ean, **En verde-Berdean** jarri genuen martxan, Ihoberen jasangarritasunari eta ingurumenari buruzko podcast-kanala, Begoña Beristain kazetariak gidatua. 2022an, bi programa grabatu ziren, eta adituei leku eman zitzaien osasun-krisia eta krisi ekologikoa hobeto komunikatzeari buruz eta ekonomia zirkularrari eta eko-berrikuntzari buruz hitz egiteko.

Ekoizpen propioko atal horiek Ihobe podcast kanalean ere aurki daitezke. Kanal horretan, Ihobero teknikariek komunikabideetan egiten dituzten esku-hartzeak jasotzen dira, horren bitartez Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren eguneroko lanaren ondoriozko ezagutza teknikoari buruzko informazioa emateko eta ezagutza hori zabaltzeko.





## Euskadiko ETE Zirkularra programa aurkeztu da

Martxoa 2022

Euskadiko **Ekonomia Zirkularren Estrategiaren** ezarpenean aurrera egiteko.



## Euskadik Ingurumen Esparru Programa berria diseinatu du

Apirila 2022

2030era arte bere **jasangarritasun-politika** markatuko duen ardatza.



- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6



## Euskadiko Lurzoria Babesteko 2030erako Estrategia


Ekaina 2022

Lurzoriaren babesari modu integralean heltzen dion lehenengo estrategia onartu da.



irakurri gehiago

Zerikusia duen argitalpena ↗



## Erotegi-efektuko gasen isurien azken inbentarioa

Ekaina 2022

Pandemiak %12ko murrizketa historikoa ekarri zuen Euskadiren 2020ko berotegi-efektuko gasen isurietan.



irakurri gehiago

Argitalpenak ↗

Argitalpenak ↗

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6

## 2022 mugarriak



### Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programa Uztaila 2022

Hogei erakunde inguruk bat egin dute jada **Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programa** berriarekin.



Argitalpena 



### Udalsarea 2030ek bere 20. urteurrena ospatu du 205 eskualde eta udalerrirekin Iraila 2022

2022an, udalerrri jasangarrien euskal sareak lankidetzarako esparru-akordio berria aurkeztu zuen, **Euskadin tokiko ekintza jasangarria eta Tokiko 2030 Agenda** sustatzeko.



Zerikusia duen argitalpena 

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6



## Lehorreko habitaten klima-arriskua kalkulatzeko metodologia

Iraila 2022

Ihobek natura ondarean **ekintza klimatikoa bultzatzeko tresna bilduma** berritzaile bat aurkeztu du.



Bilduma osoa kontsultatu eta deskargatzeko eskuragarri dago Ihoberen webgunean



## Basque Circular Hub berri bat ireki egin da

Urria 2022

Eusko Jaurlaritzak **ekonomia zirkularra** bultzatzen du, Gasteizen **Basque Circular Hub** zentroaren beste egoitza bat irekitzearekin.



- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6

## 2022 mugarriak



## Trantsizio energetiko eta klimatikoari aurre egiteko laguntza

Azaroa 2022

Ihobek eta EEEK toki-administrazioei **trantsizio energetiko eta klimatikoari aurre egiten laguntzeko** zerbitzuak aurkeztu dituzte



Zerikusia duen argitalpena



## Euskadi, erreferentea konomia zirkularra arloan

Azaroa 2022

Basque Circular Summit-ek ekonomia zirkularra aurkeztu du **euskal industria deskarbonizatze**ko funtsezko tresna gisa.



- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6



## Ihobek, Euskadiko ekoberrikuntzari buruzko gida bat aurkeztu du Azaroa 2022

Lankidetzak publiko-pribatuak **105 proiektu ekoberritzaile** bultzatu ditu Euskadin, irtenbide zirkular arrakastatsuekin.



Argitalpenerako esteka 



## Ekoetxea bere webgunea berri du ekintza klimatikoarekin lotutako esperientziak eskaintzeko Abendua 2022

Euskadiko Ingurumen Zentroen Sareak bere eraldaketa-prozesuari ekin dio, herritarrek **konpromiso handiagoa** izan dezaten **klima-aldaketarekin**.



- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6

# Egizu bat

gure online komunitatearekin 

[www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus)

